

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

72/2016 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, behin betiko onartzen duena Haraneko Planeamenduko Arau Subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedientea, Done Bikendi Haraneko 1. poligonoko 1.371. lurzatiari dagokiona

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Haraneko Udalak 2014ko maiatzaren 6an erabaki zuen hasierako onarpena ematea Planeamenduko Arau Subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedienteari, zeina Done Bikendi Haraneko 1. poligonoko 1.371. katastro lurzatiari baitagokio, eta hura jendaurrean jartzea. Hala, iragarkiak jarri ziren 2014ko uztailaren 4ko ALHAOn (75. zenbakia), 2014ko uztailaren 11ko "Diario de Noticias de Álava" egunkarian eta Udalaren iragarki oholean, eta administrazio batzarrei jakinarazi zitzairen.

Bigarrena. Jendaurrean egon zen bitartean ez zen alegaziorik aurkeztu. Beraz, Udalak, 2014ko abenduaren 17ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedienteari eragozpenik ez jartzea erabaki zuen, Arabako Hirigintza Planeamenduaren Atalaren apirilaren 22ko 1/2015 bilkuran.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2015eko maiatzaren 21ean sartutako idazkiaren bitartez, Haraneko Udalak espedientea bidali zuen, behin betiko onar zedin.

Bosgarrena. 2015eko ekainaren 11ko irteera data duen idazkiaren bitartez, Udalari adierazi zitzaion espedienteaz aztertu eta gero eta txostena egin aurretik berak agiri batzuk aurkeztu behar zituela. Udalak 2015eko abenduaren 29an aurkeztu zituen agiri horiek AFAko Erregistro Orokorrean.

Seigarrena. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 14ko 155/1999 Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeak espedientearen gaineko txostena eman zuen martxoaren 10eko 1/2016 bilkuran.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Done Bikendi Haraneko Administrazio Batzarrak sustatu duen espediente honen xedea da Haraneko Planeamenduko Arau Subsidiario indardunetan aldaketa egitea 1. poligonoko 1.371. katastro lurzatiari dagokionez. Lurzati hori Administrazio Batzarrarena da, 1.072,35 m² ditu, eta gaur egun kirol instalazio bat dago bertan: aire zabaleko pista, eta aldagelena eta biltegiaren eraikina, hondatuta eta utzita.

Lurzati horrek "kirol ekipamendurako toki sistema" kalifikazioa du gaur egun, eta "komunitate ekipamendu orokorrerako sistema orokorra" kalifikazioa eman nahi zaio. Horrenbestez "GO2. Ekipamendu orokorrerako sistema orokorreko zona" ordenantza aplikatuko litzaioke.

Bigarrena. Aldaketa horren komenigarritasuna eta egokitasuna justifikatzeko, agiri teknikoak dio lurzatiaren kirolaz besteko ekipamendu erabilerak ezarri ahal izango direla, horrela lurzatiaren aprobetxamendua hobetu eta udalerriko turismo sektorea biziberritu ahal izango dela eta, bide batez, erabilera berri horiek kokatzeko zona berriak sortu beharra saihestuko dela. Positiboki baloratzen da ekipamendutarako erabileren kontzentrazioa, zeinak, gainera, berekin ekarriko baitu Haraneko egungo eraikuntzak birgaitzea.

Hirugarrena. Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2015eko apirilaren 22ko bilkuran, ez du trabarik jarri, bere txostenean lotesleak diren alderdietan, espedienteak aurrera egin dezan.

Laugarrena. Herrilan eta Garraio Zuzendaritzak txostena eman du, eta bertan adierazi du proposatutako aldaketak ez diola eragiten Arabako Lurralde Historikoko inongo erreperi.

Bosgarrena. 2/2006 Legearen, lurzoruaren eta hirigintzarenaren, 90. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera izapidetu da espedienteak.

Horrenbestez, nire eskumeneko ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Haraneko Planeamenduko Arau Subsidiarioen 7. aldaketa puntualaren espedienteak, Done Bikendi Haraneko 1. poligonoko 1.371. lurzatiari dagokiona.

Bigarrena. Ebazpen hau eta berari dagokion hirigintza arautegia argitara ematea ALHAOn.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beronen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, berau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako Salan.

Gasteiz, 2016ko martxoaren 15a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

ALDATUTAKO ARAUTEGIA

Haraneko udalerriko Planeamenduko Arau Subsidiarioen 135. artikulua testu berria.

135. artikulua GO2 ordenantza – Komunitate ekipamendu orokorrerako sistema orokorreko zona

1. Aplikazio eremua

Ordenantza hau aplikatuko zaio “komunitate ekipamendu orokorra” erabilera orokorra daukan hiri lurzoruari. Horrelako lurzoruak Aldako eta Done Bikendi Haraneko herriguneetan dago, eta haren mugak kalifikazio orokorraren eta kalifikazio xehakatuaren planoetan ageri dira.

2. Antolamendu mota

Bolumetria espezifikokoaren arabeko antolamendu mota aplikatuko da, konfigurazio malguko modalitatean.

3. Eraikuntza motak: eraikuntza mota hauek baimentzen dira:

1. mota. Erabilera eskusiboko eraikin bakartua.
2. mota. Erabilera partekatuko eraikin bakartua.
3. mota. Eraikin bakartua, elkarri atxikitako hainbat eraikin edo atalek osatua.
4. mota. Eraikin multzoa, hainbat eraikin edo atal exentuk osatua.

4. Erabilera baimenduak.
- a/ Berezko erabilera orokorra: komunitate ekipamendua.
- b/ Onartutako erabilera xehakatuak:
- Bizitegia
 - o Erabilera zerbitzari gisa: familia bakarreko edo familia anitzeko etxebizitza: 2., 3. eta 4. motak.
 - o Etxebizitza kolektiboa: 1., 2., 3. eta 4. motak.
 - Ekipamendua
 - o Erlijioa, ikuskizunak, herritarren segurtasuna eta hiri zerbitzuak: 1. eta 4. motak.
 - o Gainerako ekipamenduak: 1., 2., 3. eta 4. motak.
 - Bulegoak: erabilera zerbitzari gisa: 2., 3. eta 4. motak.
 - Espazio libreak.
5. Oin berriko esku hartzeei aplikatu beharreko baldintzak eta parametroak
- a/ Oinarrizko eraikigarritasuna
- Eraikigarritasun koefiziente bakarra egongo da baimendutako erabilera guztietarako: 0,80 m²/m².
 - b/ Lurzati eraikigarria.
 - Arau hauek behin betiko onartzerakoan dagoena.
 - Lurzati berria, hurrengo lerroaldean adierazten den moduan egingo den zatiketaren emaitza.
 - c/ Gutxieneko lurzattia, partzelazioetarako.
 - Zatitze edo banantzeetatik sortutako lurzati berriek gutxienez 1.000 m². ko azalera eduki behar dute.
 - d/ Gutxieneko tartea eraikuntzatik mugetaraino.
 - Bide publikoetaraino, 6 metro, bidearen ardatzeraino neurtuta.
 - - Alboetako eta atzeko mugetaraino: 3 metro.
 - e/ Lurzati bereko eraikinen arteko tartea.
 - Lurzati berean dauden eraikinen artean bost (5) metroko tartea egongo da.
 - f/ Gehieneko okupazio koefizientea.
 - Ehuneko 60.
 - g/ Jatorrizko kotaren gainetik gehienez eraiki daitekeen solairu kopurua.
 - Bi solairu, beheko solairua barne, gehi estalkipea (2+E).
 - h/ Sestratik gorako altuera, gehienez.
 - Egin beharreko jarduerak eskatzen duena, muga hauek gainditu gabe:
 - o Bi solairu eta estalkipea dituzten eraikinetan: 8,50 metro erlaitzeraino edota hegaleraino.
 - o Bi solairu dituzten eraikinetan: 7,5 metro erlaitzeraino edota hegaleraino.
 - o Solairu bakarra duten eraikinetan: 5,50 metro erlaitzeraino edota hegaleraino.

i/ Solairuen altuera librea

- Egin beharreko jarduerari dagokiona.

j/Fatxadako irtenguneak.

- Zenbat irten daitezkeen: 0,80 metro, 3,00 metroko altuera libretik gora.
- Gehieneko luzera: kokatuta dauden fatxadaren bi heren (2/3).

k/ Gainerako parametroak.

– Artikulu honetan arautu ez diren parametroetarako, kasua bada, arau hauetako arautegi orokorrean ezarritako baldintza orokorrak bete beharko dira, bai eta legeria sektorial aplikagarrian ezarritakoak ere.

6. Lehendik badiren eraikinak aldatzeko eraikuntzako esku hartzei aplikatu beharreko baldintzak.

– Lehendik badiren eta katalogatuta ez dauden eraikinetan edozein motatako aldaketak egin ahal izango dira, eraikina handituz edo handitu gabe. Betiere, oin berriko esku hartzeetarako ezarritako baldintzak bete beharko dira.

– Eraikin katalogatuetan, berriz, ordenantza hauen X. tituluan ezarritako baldintzak beteko dira, hau da, ondare historikoa eta naturaguneak babestu eta kontserbatzeko baldintzak.